



Ebazpen, Unibertsitate Antolamendu eta Plangintzaren zuzendaria, zeinen bidez deia egiten baita Musikene Goi Mailako Musika Ikastetxe Baimenduan sartzeko 2026-2027 ikasturterako goi-mailako Musika sarrera-proba egiteko.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatuta, 54.2 artikuluan ezartzen duenez, musikako goi mailako ikasketak egin ahal izateko, beste hainbat betebeharrak akademikoez gain, sarrera-proba ere gainditu behar da, eta proba horretan, izangaiak erakutsi beharko du ikasketak probetxuz egiteko beharrezkoak diren ezagupen eta gaitasun profesionalak badituela.

Sarrera-probak gaindituta 2026-2027 ikasturtean aukeratu daitezkeen espezialitateak esplizituki aipatzen dira araudi honetan, eta maiatzaren 14ko 631/2010 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan zehaztutako espezialitateen zerrendan jasota egongo dira.

Aipatutako errege-dekretu horren 5.4 eta 5.5 artikuluen arabera, hezkuntza-administrazioei dagokie, beren eskumen-eremuaren barruan, ikasketa horiek egiteko sarrera proba berezia egiteko deialdia egitea eta hura antolatu, aurrera eraman eta ebaluatzea. Ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1.- Helburua

Ebazpen honen xedea da 2026-2027 ikasturterako musikako goi mailako arte irakaskuntzetara sartzeko probarako deialdia egitea. Proba hori abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatu zuen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 54.2 artikuluan aurreikusita dago.

2.- Espezialitateak

Hona 2026-2027 ikasturterako Musikenek eskaintzen dituen espezialitateak:

- Interpretazioa, hurrengo instrumentuetan:
 - Akordeoia
 - Biola
 - Biolina



- Biolontxelo
- Fagota
- Flauta
- Gitarra
- Harpa
- Jazza (bateria, baxu elektrikoa, gitarra, kantua, kontrabaxua, pianoa, saxofoia, tronboia eta tronpeta)
- Kantua
- Klarinetea
- Kontrabaxua
- Oboea
- Organoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Tronboia
- Tronpa
- Tronpeta
- Tuba
- Txistua
- Konposizioa
- Pedagogia
- Zuzendaritza

3.- Sartzeko betekizunak

3.1.- Maiatzaren 14ko 631/2010 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, musikako graduatu-titulua lortzeko ikasketa ofizialetan sartzeko, alde batetik, maiatzaren 14ko 628/2022 Errege Dekretuak aldatu zuen, urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira; beraz, izangaiek batxilergoko titulua izan beharko dute, edo unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorako proba gainditu beharko dute, edo goi-mailako arte-irakaskuntzetako goi-mailako titulua, unibertsitate-titulua edo goi-mailako teknikari-titulua izan beharko dute.



Bestalde, 631 Errege Dekretuaren 5.3 artikulua ezartzen duenaren arabera, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatu zuen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 54.2 artikuluan aipatzen den **sarrera-proba espezifikoa** gainditu beharko da. Bertan, izangaiek dagozkien irakaskuntzak probetxuz egiteko beharrekoak diren trebetasun profesionalak eta ezagutzak frogatu beharko dituzte.

3.2.- Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatutako 2/2006 Lege Organikoaren 54.2 artikulua ezartzen du, halaber, Musikako Titulu Profesionalaren jabetza kontuan hartuko dela probaren azken kalifikazioan. Maiatzaren 14ko 631/2010 Errege Dekretuaren 5.7 artikuluekin bat etorritik, ebazpen honek ezartzen du izangaien ikasketa profesionalen espedienteko batez besteko nota sarrera-probaren amaierako notaren %20 izango dela, betiere proba espezifikoa gainditu badute eta Musikako Titulu Profesionala aurkezten baldin badute horretarako ezarritako epean.

3.3.- Musikako goi-mailako arte-irakaskuntzak egin ahal izango dituzte, halaber, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautzen dituen eta arte-irakaskuntza profesionalen antolamendua eta baliokidetasunak ezartzen dituen ekainaren 7ko 1/2024 Legearen 7.3 artikuluan ezarritakoa betez, 16 eta 18 urte bitarteko adingabeak, baldin eta aparteko gaitasuna edo goiztiartasuna adierazten badute, eta maiatzaren 14ko 631/2010 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan ezarritako baldintza akademikoak betetzen ez badituzte, eta 2/2006 Lege Organikoaren I. tituluko IV. kapituluaren aurreikusitakoaren arabera izangaiak batxilergoa amaitzean aurreikusitako funtsezko gaitasunak garatu dituela egiaztatzen duen heldutasun-proba gainditu badute.

Proba hori autonomia-erkidego guztietan egiten da. Euskal Autonomia Erkidegoan heldutasun-proban izena emateko epea 2026ko otsailaren 18tik martxoaren 18ra arte izango da ([Hezkuntza Politiketako Sailburuordearen ebazpena](#)).

4.- Sarrera probaren ondorioak eta baliozkotasuna

Musikako goi-mailako ikasketetan aritzeko sarrera-proba gainditzeak bakar-bakarrik ematen du aukera proba-deialdiko ikasturtean matrikulatzeko, alegia, 2026-2027 ikasturtean matrikulatzeko. Horrenbestez, proba gaindituta plaza lortu ezean, goi-mailako ikasketa hauetan aritzeko interesa izanez gero, izangaiek proba osorik errepikatu behar dute hurrengo deialdietan.



5.- Probak egitea

5.1.- Musikeneko Musika Graduako ikasketetara sartzeko probak 2026ko ekainaren 8a eta 19a bitartean egingo dira, ikastetxean bertan. Espezialitatearen baten plaza erreserbatuta bada, beste sarrera-proba espezifiko baterako deialdi bat egin ahal izango da 2026ko irailean, eta behar bezala iragarriko da ikastetxearen webgunean.

5.2.- Musikeneko webgune ofizialean (www.musikene.eus) gutxienez astebete lehenago argitaratuko da zein egunetan eta ordutan egingo diren proben atal guztiak; era berean, bestelako informazio garrantzitsu guztia ere bertan azalduko da.

6.- Epaimahaiak

6.1.- Espezialitate bakoitzeko epaimahai bakarra izendatuko da. Gutxienez ere hiru kideko kopuru bakoiti batek osatuko du epaimahaia. Kideak dagokion espezialitatekoak izango dira; edo, bestela, antzeko espezialitateetakoak.

6.2.- Sarrera-proba zuzen baloratzeko, ariketen espezialitateko irakasleen aholkularitza izan dezake epaimahaiak, beharrezko baderitzo.

6.3.- Musikeneko organo eskudunek izendatuko dituzte epaimahaiko kideak.

7.- Sarrera-proben egitura eta edukia

7.1.- Sarrera-probaren oinarritzko egitura 631/2010 Errege Dekretuaren 5. Artikuluak deskribatzen du.

7.2.- Sarrera-proben egitura eta edukiei buruzko informazio guztia www.musikene.eus web gunean argitaratuko da.

8.- Izena emateko eskabidea

8.1.- Izena emateko eskaera prozedura honen arabera egingo da:

- 1- Izen-ematea online egingo da Musikeneren webgunean horretarako prestatutako formularioaren bidez: "Sarbidea eta onarpena, Gradua". Eskabidea egitean, izangaiek berariaz adierazi beharko dute zein espezialitate aukeratu nahi duten, gehienez ere hiru. Eskatzaileak izena eman nahi duen espezialitate bakoitzeko inprimaki bat bete beharko da.



2- Betetako formulario bakoitzean nahitaez erantsi beharreko dokumentazioa honako hau da:

- Indarrean dagoen NAN, AIZ edo pasaportearen kopia.
- Deialdi honetarako 9. paragrafoan jasotako inskripzio-eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria. Aukeratu nahi den espezialitate bakoitzeko, dagokion tasa ordaindu beharko da. Sarrera-kontzeptuan kasu bakoitzean zein espezialitate lortu nahi den zehaztu beharko da.

3- Betetako formulario bakoitzean erantsi beharreko aukerako dokumentazioa:

- Piano-jole laguntzailea eskatuz gero, piano-joleak eskatutako espezialitate bakoitzerako tasak ordaindu izanaren egiaztagiria.
- Deialdi honen 9.1. puntuan tipifikatutako deskontuen onuradun izatearen egiaztagiria.

4- Inskripzioa 2026ko martxoaren 15etik maiatzaren 15eko 13.00ak bitartean egin beharko da. Ez da onartuko data horren ondoren bidalitako eskaerarik, ez eta posta elektronikoz, postaz edo beste edozein bidetatik bidalitakorik ere.

8.2.- Honako hau da Musikenerekin harremanetan jartzeko posta, sarrera-probei dagokien guztirako: pruebas.acceso@musikene.eus. Jakinarazpen oro nahitaez egingo da eskatzaileak inskripzio-formularioa betetzean emandako helbide elektronikotik.

8.3.- Inskripzio horiek formalizatuta geratuko dira eskatzaileek online izena emateko formularioa bete eta nahitaezko dokumentazioa erantsi ondoren. Horretarako, mezu elektroniko bat jasoko dute.

9.- Inskripzioaren prezioa

Musikene 2026-2027 ikasturtetako sarrera-proben deialdirako ezarritako izen-ematearen prezioa **80 eurokoa** da eskaintzen den espezialitate bakoitzerako.

Izen-ematearen prezioari aplikatu beharreko deskontuak:

- Katetoria orokorreko familia ugaria: %50
- Katetoria bereziko familia ugaria: %100
- Guraso bakarreko familia (ondorengo bat dutenak): % 50
- Guraso bakarreko familia (bi ondorengo edo gehiago dituztenak): %100



- %33ko desgaitasuna edo handiagoa: %100
- %65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duen zuzeneko senide bat duten pertsonak: %100
- Terrorismoaren biktimak eta haien senideak: %100
- Genero-indarkeriaren edo sexu-indarkeriaren biktima: %100
- Asilo-eskatzailak, nazioarteko babesaren onuradunak eta aberrigabeak: %100
- Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunak: %100

Zenbateko horien ordainketan sartzen da, bakar-bakarrik, dagokion sarrera-proba espezifikoan parte hartzeko eskubidea, eta ez izangaiak musikari laguntzaileen eskuhartzearen ondorioz izan ditzakeen gastuak. Ordainketa jarraian adierazten den kontu korrontean egingo da, eta horren ordezkagiria Musikenera bidali beharko da gainerako dokumentuekin batera, aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera.

Musikeneren banku-datuak:

Bankua: Kutxabank

Helbidea: Garibay kalea, 15; 20004 Donostia-San Sebastián

Erakundea: 2095 Bulegoa: 0611 DC/kontu-zenbakia: 04 1062407878

IBAN kodea: ES25 2095 0611 0410 6240 7878

SWIFT-BIC kodea: BASKES2BXXX

10.- Probaren kalifikazioa

10.1.- Sarrera-proba zero eta hamar arteko puntuazio baten bidez kalifikatuko da. Puntuazio hori atal bakoitzean lortutako kalifikazioen batez besteko haztatua izango da. Zati bakoitzak batez besteko haztatu horretan duen pisua espezialitatearen ezaugarriekin duen lotura-mailaren arabera izango da.

10.2.- Sarrera-proba gainditzeko, bost puntu edo gehiago lortu behar dira. Musikenek ikastetxeko iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko ditu sarrera-proba espezifikoaren emaitzak, zati edo ariketa bakoitzaren kalifikazio partzialak eta kalifikazio orokorra zehaztuta. Behin betiko emaitzak dagozkien aktetan jasoko dira.

10.3.- 1/1990 Lege Organikoaren arabera Musikako Lanbide Titulua edo abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatutako 2/2006 Lege Organikoaren arabera Musikako Lanbide Titulua dutenek, titulu horretan lortutako batez besteko nota berariazko probaren azken kalifikazioan kontabilizatzea nahi badute, horren egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte.



Izena emateko epea amaituta, titulu profesionalaren batez besteko notaren ziurtagiria erantsi nahi dutenek horretarako onartutako pertsonen prueba.acceso@musikene.eus helbide elektronikotik bidaliko zaien formularioaren bidez egin beharko dute.

Batez besteko nota erantsi nahi zaion espezialitate bakoitzeko formulario bat bete beharko da. Horretarako epea ekainaren 5eko 13:00etan amaituko da.

11.- Erreklamazioak

11.1.- Eskatzaileek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote epaimahaiari, Musikeneko proba espezifikoan lortutako kalifikazioei, hiru egun balioduneko epean, emaitzak argitaratzen direnetik zenbatzen hasita, eta gehienez ere hamar egun balioduneko epean ebatzi eta argitaratuko dira iragarki-taulan, horiek jartzeko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Behar bezala arrazoitutako eta justifikatutako kalifikazioa berrikusteko eskabideak baino ez dira izapidetuko, baldin eta idazki formalaren bidez, data jarrita eta indarrean dagoen NANarekin, AIZarekin edo pasaportearekin sinatuta aurkezten badira, Ikasketen Antolamendurako Zuzendariordetza zuzenduta eta posta elektronikoz reclamaciones@musikene.eus helbidera bidalita.

11.2.- Epaimahaiaren ebazpenaren aurka, izangaiak gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dio Unibertsitate Antolamendu eta Plangintzaren Zuzendariari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

12.- Dokumentazioaren zaintzea

Probak egin diren ikastegian gordeko da proben ondorioz sortutako dokumentazioa probak egin eta hiru hilabetez.

13.- Musikenen sartzea

13.1.- Sarrera-probak gainditu eta hautatuak izan diren ikasleek uztailaren lehen hamabostaldian formalizatu beharko dute matrikula Musikenen, horretarako zehazten diren egunetan. Musikenek alde aurreko "Plaza erreserba" sistema ezartzen du, espezialitate guztietarako **nahitaezkoa** izango dena. Espezialitate bakoitzaren behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, matrikula izapidetzeko jarraitu beharreko prozedurari buruzko informazio zehatza bidaliko da posta elektronikoaren bidez.



13.2.- Espezialitate baten baino gehiagotan ikaspostua lortu duten ikasleek bat aukeratu beharko dute. Ikasketen lehenengo ikasturterako espezialitate batean besterik ez da matrikula onartuko. Nahi izanez gero, hurrengo ikasturtean egin ahal izango du ikasleak matrikula bigarren espezialitate batean, horretarako berriz ere dagokion sarrera proban ikaspostua lortu behar duelarik, eta ikastetxearen oniritzia lortu.

13.3.- 1/2013 Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, pertsona ezinduen eskubideen Lege Orokorreko berridatzitako testuak finkatzen duena jarraituz, eskaintzen diren ikaspostuen %3a, %33 ezintasun maila bat aitortuta duten ikasleei gordeko zaie, beti ere ikasketa betebeharrak betetzen dituztelarik eta berariazko sarrera proba gainditzen dutelarik. Horretarako, hautagaiek desgaitasun-mailaren kalifikazio- eta aitorten ziurtagiria aurkeztu beharko dute, inskripzioa egiten den unean organo eskudunak emana, gainerako dokumentazioarekin batera.

13.4.- Goi-mailako eta errendimendu handiko kirolariei buruzko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren 9.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, plazen % 3 goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatzen duten kirolarientzat gordeko da, betiere dagozkion baldintza akademikoak betetzen badituzte eta proba espezifikoa gainditzen badute. Horretarako, hautagaiek inskripzioa egiteko unean organo eskudunak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko dute, gainerako dokumentazioarekin batera.

13.5.- Matrikula formalizatzeko unean, izangaiek ziurtatu behar dute probak egiteko egunean deialdi honetako 3. atalean kasu bakoitzerako eskatzen diren betekizunak bazituztela, eta dokumentazio hau eman behar dute:

- Batxilergoa gainditu dutela adierazi duten izangaiek: Batxiler-tituluaren kopia konpultsatua edo eskatu izanaren frogagiria.
- 25 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko proba gainditu dutela aitortu dutenek: kalifikazio-txartelaren kopia konpultsatua.
- Goi-mailako arte-irakaskuntzako goi-mailako titulua, unibertsitate-titulua edo goi-mailako teknikariaren titulua dutela adierazi duten izangaiek: titulazio horren kopia konpultsatua edo eskatu izanaren frogagiria.
- 2008 eta 2010 urte bitartean jaiotako izangaien kasuan, baldin eta heldutasun-proba gainditu dutela adierazi badute eta dutela eta aparteko gaitasuna edo



- goiztiartasuna adierazten badute, ikasketa horietako nahitaezko baldintza akademikoen ordezkoko proba gainditu dutela egiaztatzen duen ziurtagiriaren kopia konpultsatua.

13.6.- Horiek egiaztatu ezean, zerrendako hurrengo izangaiak beteko du plaza.

13.7.– Bete gabeko plazarik geratzen bada, Musikenek plaza horiek esleitu ahal izango dizkie sarrera-probak beste musika-kontserbatorio edo musikako goi-mailako ikastegi batean gainditu dituzten ikasleei. Ikasle horiek onarpen-eskaerak egin ahal izango dituzte 2026ko uztailaren 1tik 10eko 13:00etara bitartean Musikeneko idazkaritzan. Eskaera horiek ikastegiko organo eskudunak ebatziko ditu.

Sara Urionabarrenetxea

UNIBERTSITATE ANTOLAMENDU ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA